

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Andoni Alvarez Lete Estibalitz Mujika Tolaretxipi Jon Zulueta Berastegi Garazi Usandizaga Zubiria Julian López Aracama M ^a Teresa Etxeberria Arteun Xabier Fondón Pajares
PSE-EE	José Luis Verdasco Gutierrez Ascensión Parrón Peguero Petra Romero Pozo Oscar Mendo González
EAJ-PNV	Maria Jose Izagirre Iturzaeta Alexander Huitzi Alfonso M ^a Sagrario Ruiz Fernández Imanol Goenaga Egibar
Elkarrekin Podemos	M ^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	0000011
Eguna	2021/10/28
Hasiera	19.00
Amaiera	19.49

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

1. 2021,09,30 eta 2021/10/07(e)an egindako batzarren akten zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

2. Beterri-Buruntza Mankomunitateko estatutuen behin betiko izaeraz onartzea
3. Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusirako edo Gobernu Kolegiatuaren Organorako Ordezkarien izendapena.
4. 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren hiri tarifak onartzea
5. 10/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzea
6. 12/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzea
7. 13/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzea
8. Migraziorako Euskal Itun Sozialari atxikitzea.

Kontrola

9. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1741/2021

Orden del Día:

- 1.- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 30/09/2021 y 07/10/2021.

Parte Dispositiva

- 2.- Aprobación definitiva de los estatutos de la Mancomunidad Beterri-Buruntza.
- 3.- Nombramiento de Representantes para la Asamblea General u Órgano de Gobierno Colegiado de la Mancomunidad Beterri-Buruntza.
- 4.- Aprobación de las tarifas urbanas del servicio de autotaxi para el año 2022.
- 5.- Aprobación de expediente modificativo de crédito nº 10/2021.
- 6.- Aprobación de expediente modificativo de crédito nº 12/2021.
- 7.- Aprobación de expediente modificativo de crédito nº 13/2021.
- 8.- Adhesión al Pacto Social para la Migración.

Parte de Control

- 9.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas



- zenbakidunetik 1901/2021 zenbakidunera. entre la nº 1741/2021 y la nº 1901/2021.
10. Galderak, eskaerak eta proposamenak. 10.-Ruegos, preguntas y propuestas.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:
“Arratsalde on guztioi eta mila esker gurekin izateagatik eta ongi etorriak izan zaitezte 2021eko urriaren 28ko udalbatzarra honetara.
“Buenas tardes a todas y todos y, bienvenidos y bienvenidas al pleno del 28 de octubre de 2021.”

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1. 2021/09/30 eta 2021/10/07(e)an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honako azalpena eman du:
“Aipatu behar dut, goizean Idazkaritzatik bidali zaizue bi akats, bata iraileko aktari dagokionez, 4. orrialdean, zinegotzi baten parte.-hartzea bat zegoen ez zen aipatzen zein zinegotzi zen eta, baita ere, 14. orrialdean, zati erabakitzailean, akatsa bat zegoen eta zuzendu da.
“Se ha remitido un correo electrónico esta misma mañana desde Secretaria, haciendo saber que se incorporaban dos modificaciones al acta de setiembre. Una es en la página 4, donde se hace alusión a la intervención del un concejal sin identificar al mismo y por otra parte, en la página 14 había un error en la parte dispositiva del acuerdo y se ha corregido.”
2021/09/30 eta 2021/10/07 datetako batzarraldiei dagozkien aktak aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman dira.

2. Beterri-Buruntza Mankomunitateko estatutuen behin betiko izaeraz onartzea.

Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) 2017ko urtarrilaren 27an elkarren arteko lankidetz hitzarmena sinatu zuten, horren xedeetako bat izanik tokiko garapen, sustapen ekonomiko eta enplegu alorrean eskualde mailako egitura bat sortzeko azterketa egitea. Hitzarmen horri esker Beterri-Buruntzako udalak lanean aritu dira eskualde mailako garapen agentzia baten babesean elkartzeko, jarraian adierazten diren udal eskuduntzako zerbitzu eta/edo obren exekuziorako: “tokiko garapen ekonomiko eta soziala, enpleguko politika edo planak, tokiko turismoaren promozioa eta kudeaketa”.

Ikusirik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gairik erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 4. eta hurrengo artikuluen edukia, eta jakinik arestian aipaturiko herrien arteko elkarlana, azaldutako xedei dagokienez, onuragarria dela udal honentzat eta bertako bizilagunentzat, baliabide publikoak modu egokiagoan kudeatzeko aukera eskainiko duelako.

2017an sinatutako udalen arteko lankidetz hitzarmenaren ondorioz sortutako Batzorde Kudeatzaileak 2019 otsailaren 13an adostu zuen aipaturiko udalei traslatatzea proposamen bat, Plenoan erabaki zezaten konpromisoa hartzea Beterri-Buruntza eskualdeko tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko. Hori horrela, aipatu sei udalen Udalbatzek, arestian aipaturiko xedeetarako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko konpromisoa hartu zuten.

Ondoren, espedientea izapidetzeko eratu zen Batzorde Kudeatzaileak estatutuen aurreproiektua onartu zuen 2020ko martxoaren 16ko bilkuran.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gairik erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 6.1. artikuluari jarraiki, udal guztietako zinegotzi guztiek osatu beharreko Batzarrak estatutuen proiektua onartu zuen.

2021eko maiatzaren 13ko dataz, Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatu Foru Arauak eskatutako txostena egin zuen, bertan estatutueta hainbat artikulua aldatzea proposatzen zuelarik.

Behin txosten horretan adierazitakoak estatutuen testuan jasota, eta 6/2007 Foru arauaren 6.1.1.e)



artikulari jarraiki, aldaketok onartzeko Zinegotzien Batzarra deitu zen, eta 2021eko irailaren 13an estatutu proiektua behin betikoz onartuz, batzartutakoen aho batez.

2021.10.06ko datarekin Udalari jakinarazi zaio hartutako erabakia eta estatutuen behin betiko testua helarazi.

Kontuan harturik Udal Enplegua eta Gazteria Teknikariaren txostena 2021.10.06ko data duena.

Kontuan harturik Udal Idazkariaren txosten juridikoa, 2021.10.06ko data duena.

Ikusirik, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzordeak 2021eko urriaren 13ko bileran emandako irizpena.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Bakarrik aipatzea, irizpenean hiru puntu daudela, baina, bigarren puntua ez dugula oraintxe bertan onartuko, hain zuzen ere, hirugarren puntuan, hain justu, gai honi buruz hitz egingo dugulako. Lehenengo puntua izango litzateke Beterri Buruntza Mankomunitateko estatutuak behin betikoz onartzea eta 3. puntua noski akordio honen berri Akordio honen berri ordezkari gisa izendatutako zinegotziei, Hernani, Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzailari ematea, azken honetako lehendakariak, behin udalek akordio guztiak hartuta, erabakia eta onartutako estatutuen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan.

“Decíamos que en el dictamen hay una matización que hacer, aparecen tres puntos, pero en este momento sólo se someterían a votación dos puntos, el primero y tercero. El segundo no se trata porque se tratará en el siguiente punto del orden del día del pleno.

“Por tanto, los puntos que se someten a votación serían el primero, que se trata de aprobar definitivamente los estatutos de la mancomunidad de Beterri Buruntza y el tercero, sería dar traslado del presente acuerdo a los ayuntamientos de Hernani, Astigarraga, Urnieta, Usurbil y Lasarte-Oria y a la Comisión Gestora para que por su presidente, en este caso presidenta para que una vez adoptados todos los acuerdos por los ayuntamientos, se proceda a la publicación del acuerdo y del texto de los estatutos aprobados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Beterri-Buruntza Mankomunitatearen estatutuak behin-betikoz onartzea.

2.- Akordio honen berri ordezkari gisa izendatutako zinegotziei, Hernani, Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzailari ematea, azken honetako lehendakariak, behin udalek akordio guztiak hartuta, erabakia eta onartutako estatutuen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan.

3. Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusirako edo Gobernu Kolegiatuaren Organorako Ordezkarien izendapena.

Ikusita Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusian edo Gobernu Organo Kolegiatuan ordezkariak izendatzeko egindako akordio proposamena.

Ikusita Beterri-Buruntza Mankomunitateko Estatutuek 7.2. artikuluan xedatzen dutela Batzar Nagusia udalerrri bakoitzeko bi ordezkari osatuko dutela, udal bakoitzeko osoko bilkurak aukeratuta, eta udal bakoitzak bi titular eta bi ordezkari aukeratuko dituela.

Ikusirik, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Irizpenemailearen lehendakariaren proposamena.

Ikusirik, 2021eko urriaren 5ean, EH Bildu udal taldeko eledunak aurkeztutako proposamen alternanitoa.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Lehenbizi, zoriondu nahiko nituzke zinegotzi guztiak, azkenean lortu dugulako estatutuak onartzea eta aurrera eramatea.

“Antes de nada, quiero felicitar a todos y todas los concejales, porque por fin hemos conseguido que se aprueben los estatutos y se pueda seguir dando los siguientes pasos.



“Puntu honetan, bi proposamen daude.”

Jarraian, Izagirre andreak EAJ/PNV udal taldeko eledunak eta Sustapen Ekonomikoa, Enplegua eta Gazterriako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Lehenengo proposamenak, gure proposamenak, bi puntu ditu eta, hauek izango liratezke. Beterri Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusirako udal ordezkari gisa honako izendapen hauek egitea, titularra , Maider Lainez eta ordezkia, Petra Romero Pozo. Bigarren titularra, M^a José Izagirre Iturzeta eta ordezkia. Alexander Huitzi Alfonso.

“Bigarren puntu bezala, akordio honen berri ordezkari gisa izandutako zinegotzietan, Hernani, Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzaileari ematea. Azken honetako lehendakariak, behin udal guztiak erabakiak erabaki eta onartutako estatutuen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan. Hau da gure proposamena.”

Berriro, Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Esan bezala , baita ere, EH Bilduk aurkeztutako beste proposamen bat dago.

“Hay una segunda propuesta presentada por parte de EH Bildu.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Guk beste proposamen bat egin dugu, zeren, gure ustez, Andoainek badu berezitasun bat, udal gobernuan dauden alderdiak, hauteskundeetan bigarren eta hirugarren geratu ziren alderdiak dira eta zuek proposatutakoan lehenengo alderdia kanpoan geratzen da. Orduan, gure proposamena da, udal gobernuak ordezkari bat izatea eta bestea izatea lehenengo indarrak, horrela, gure ustez, ordezkari bat zabaldu egingo genuke eta 17tik, gutxienez 16 ordezkari egongo lirateke, bestela, 9k izango dute ordezkari bat, horrela ulertzen dugu guk.

“Guk proposatzen dugu, udal gobernuaren izenean, Alkate izatea ordezkari bat, logikoki, eta bestea Zulueta jauna izatea, lehenengo indarraren ordezkari gisa. Ez dugu ahaztu behar gainera, mankomunitate hau iritsi garen puntura iristeko, aurreko legealdian Zulueta jauna aritu zen buru eta oraingoan jarraipena Izagirre andreak dagokio eta iritsi gara, nolabait esan, azkenean, guztion ekarpenari esker.

“Baita ere, esan behar dugu, rotatiboki alderdi guztietako ordezkariak egon direla orain arte, ulertzen dugu fase honetan egonkortasun bat emateko rotatibo ezingo lukeela izan baino, iruditzen zaigu garrantzitsua dela ordezkariak ahalik eta zabalkunde gehiena izatea eta horretatik guk proposatzen dugu udal gobernuak, Lainez andreak titularra izanik eta lehenengo indarrak beste bat, Zulueta jauna izango litzateke titularra eta ordezkia Santana andrea, esan dugun bezala, lehen rotatibo egiten zen eta guztiak parte hartzen zuten, orain, ulertzen dugu ezin dela, baino guztiok, ordezkari edo titular gisa, ordezkari izan dezagun.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza honakoa esateko:

“Nuestro grupo no está de acuerdo con la primera propuesta, la propuesta del equipo de gobierno, porque, bueno, en todo caso pensamos que es injusto y no es equitativo, por eso vamos a votar en contra, está claro.

“Queremos agradecer al grupo EH Bildu, por haber tenido en cuenta a nuestro grupo y que de alguna forma quede visibilizado de alguna forma, agradecemos el gesto por la deferencia que han tenido, pero, tampoco podemos votar a favor porque, claro, no es ahora, esto va a futuro y los compañeros y compañeras que vengan detrás no creo que entendieran que votara a favor una cosa en la que una vez más quedamos totalmente invisibilizados, porque eso está muy bien, poner como suplente, pero seguramente, pasarán años y a lo mejor ni es efectivo, ni es real, porque no se podrá acudir a ninguna reunión. Entonces, como gesto de agradecimiento por tenernos en cuenta nos vamos a abstener , pero bueno, queremos expresar la razón.

“De todas maneras no nos parece justo porque está claro que de alguna manera los representantes tenemos que estar visibles en todos los sitios, haciendo encajes gracias a los cuales podamos estar representados y poder participar, porque al final, es totalmente injusto, porque no es nada equitativo, porque al que menos tiene se le quitan todos los medios, todas las herramientas como se está haciendo, a mi en la vida cotidiana me está pasando en el día a día, no, al final todo lo que en un momento dado podías llegar pues no llegas porque no tienes herramientas ni nada como tiene el resto.

“Una vez más, quiero que quede constancia aquí, de que no estamos de acuerdo, con que no se tenga en



cuenta a los grupos minoritarios, el trabajo del día a día es muy difícil y si encima en los órganos en los que se puede tener representación, a lo mejor, no se podía continuar de la forma en la que estábamos anteriormente, pero se podía haber hecho un encaje para que todo el mundo estuviera representado. Creo que tampoco se intenta, ni se hace nada porque en realidad solo nos preocupa a nosotros y quiero que quede constancia.”

Berriro, Izagirre andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bakarrik, komentatzearren. Zerbaitetan ados gaude, mankomunitateak egonkortasuna behar du, hortan guztiz ados gaude, baina, baita ere esan behar dut mankomunitatearen ordezkari plurala izan behar duela eta pluraltasun horretan, egia da Podemos taldea ez dagoela ordezkari baina, uste dut, EH Bildu ondo ordezkari dagoela mankomunitatearen barruan, zeren, sei herrietatik, hiru herrietako ordezkariak, biak EH Bildukoak dira. Sei ordezkari ditu EH Bildu mankomunitatearen barruan.

“Orduan, hemen ez da, lehen indarra izatea edo bigarren edo hirugarren indarra izatea, hemen da, gehiengo bat dago, zuk esan bezala, egonkortasuna eman behar zaio mankomunitateari eta ordezkari hori, hala erabaki dugu gobernu taldeak eta proposamena hori da. Berriro diot, EH Bildu mankomunitatean ordezkari dago, sei herrietatik, hiru ordezkari dira EH Bildu alderdiaren bitartez.

“Bestalde, Santana andreari esan nahi diot, bueno, alde batera uzten direla edo ulertu diot, alderdi txikiena izategatik beraiek ez dutela aukerik aurrera egiteko eta erabakitzeko eta guzti hori, hor, hartu-eman bat egon da orain arte hitzarmenaren bitartez eta egongo da etorkizun batean eta, hartu-eman horretan nik uste dut bere eskubidea, bere hitza eta bere bozka izango dituela aurrerantzean ere, herri mailan izango duela orain arte bezala, orduan, zerbait esan nahi bazenun edo, zerbaiten aurka bazinan edo, zerbait gaizki egin badugu ere, esateko aukera ere izan duzu.”

Santana andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Por aclarar, he dicho que como funcionaba hasta ahora me parecía bien, como había sido hasta ahora, porque todo el mundo, de hecho, yo he participado, simplemente, con el cambio de ahora no estoy de acuerdo. Quiero decir que una vez más quedamos invisibilizados, anteriormente no, lo he dicho, como funcionaba anteriormente no, por matizar. No estamos de acuerdo con el cambio actual. No es ahora, vamos a decir, lo que queda de legislatura, tanto como lo que a futuro pueda pasar, yo quiero dejar bien claro que no estamos de acuerdo, porque luego pueden venir compañeros y si esto sigue así, decir, como pudiste votar a favor si aquí, en ningún momento estamos siendo representativos, es por eso que no voy a votar a favor de una cosa en la que no estamos representados para nada, eso es lo que he dicho que voy a votar que no al vuestro y que por la deferencia que ha tenido EH Bildu de, por lo menos, visibilizarnos y ponerme como suplente en este caso a mí nominativamente, nos vamos a abstener.”

Berriro ere, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Argitze aldera gauza bat. EH Bildu, noski dagoela mankomunitatean ordezkari baina, Andoingo EH Bildu ez. Guk hori esaten dugu Andoingo EH Bildu ez.

“Beste herrietan, Usurbil, Lasarte-Oria, Astigarragan ordezkari daude, alde batetik, lehenengo indarra eta bestetik udal gobernu, hori da guk eskatu duguna eta, hemen, lehenengo indarra ez dago ordezkari, EH Bildu ordezkari dago baina, ez Andoingo EH Bildu eta ondorioz Andoingo lehen indarra. Horixe esan dugu.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak udal gobernu taldearen proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengo, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako, botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusirako udal ordezkari gisa honako izendapen hauek egitea:

Titularra: Mair Lainez Lazcoz; Ordezkoa: Petra Romero Pozo.

Titularra: M^a Jose Izagirre Iturzaeta; Ordezkoa: Alexander Huizi Alfonso.

2.- Akordio honen berri ordezkari gisa izendatutako zinegotziei, Hernani, Astigarraga, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzaile ematea.

Jarraitu du esanez Alkate andreak:



“Bakarrik orduan komentatzea bigarren proposamena ez dela bozkatuko.”

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Bozeramaile Batzordean honetaz hitz egin zenuten eta oker ez banago eta erabaki zen udal gobernuaren proposamena onartzen bazen, automatikoki bigarren proposamena bertan behera geratzen zela.

“En la Junta de Portavoces se decidió, si no me equivoco, que aprobada la propuesta del equipo de gobierno, la propuesta alternativa no se votaba.”

4. 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren hiri tarifak onartzea.

Ikusirik, Udalbatzak, 2007ko otsailaren 6an hartutako seigarren erabakiaren bitartez, Andoingo Udalak Buruntzaldean auto-taxi garraio-zerbitzuaren araubide bereziko zonaldea ezartzeko lankidetzahitzarmenera atxikitzea onartu zuen, lankidetzahitzarmena aurrez Astigarraga, Hemani, Umietara eta Usurbilgo Udalek sinaturik baitzeukaten.

Ikusirik, hitzarmen horren helburuak hauek dira: eskualderako garraio-zerbitzu koordinatua abiaraztea, eskualde barruan modalitate guztietako taxi-zerbitzuak bermatuz, eskualdean dagoen herri bakoitzeko eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka positibo nahiz negatiboak murriztuz eskualdeko baliabideen arrazoizko erabileraren bitartez, eta batetik taxi zerbitzuaren kalitatea hobetuko duen eta bestetik sektoreko profesionalen lan-baldintzak hobetuko dituen eraginkortasuna bilatzea.

Ikusirik, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Diputatuak 2007ko maiatzaren 29an emandako Foru Aginduaren bitartez, turismo ibilgailuetan bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko Buruntzaldeko araubide bereziko eremuaren sorrera onartu zuen. Aginduan esaten da Buruntzaldeko eremu bereziko udalerririk guztietan (Andoain, Astigarraga, Hemani, Lasarte-Oria, Umietara eta Usurbil) tarifa bera ezarriko dela zerbitzuaren arabera.

Ikusirik, Gipuzkoako Taxi Elkartearen Burua den Emilio Fernández Fidalgo jaunak eta G. Taxi Gipuzkoako Taxisten Elkartearen ordezkaria den Gregario Alías Jericó jaunak idatziak aurkeztu dituzte, 2022. urterako tarifa berriak onartzea eskatuz.

Aintzat harturik, hiri-garraioaren eremuaren barruan, udalei dagokie tarifak finkatzea prezioen kontrolari buruzko legerian xedatutakoari jarraiki, bidaiarien automobil bidezko hiri-barruko eta hiriarteko garraio publikoari buruzko ekainaren 29ko 2/-2000 Legearen 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatu bezala.

Aintzat harturik, bidaiarien auto-taxi bidezko hiri-barruko garraioaren prezioak prezioen kontrolari buruzko araudiari lotuta daude, Autonomía Erkidegoaren eremuko "prezio baimenduen" modalitatean hain zuzen ere. Autonomía Erkidego honetara ahalme 11 huri Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio, otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuaren eta 2010eko ekainaren 15eko Aginduan:u arabera.

Aintzat harturik, baimendutako prezioak eta jakinarazitako pteziak. berrikusteko prozedura Ekonomia eta Ogasun Saiburuak 2010eko ekainaren 15ean emandako Aginduaren bitartez onartu zela.

Aintzat harturik, Buruntzaldeko Taxien Batzordeak, 2021eko irailaren 24an izandako bileran eta aho batez, 2022. urterako auto-taxien hiri-tarifak %2,9a igotzea onartu zuen, eskaerekin hateratzen aurkeztutako azterketa ekonomikoan esandakoaren arabera.

Ikusirik hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2021eko irailaren 29an egindako aldeko txostena.

Ikusirik, 2021eko urriaren 19an Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaleak emandako irizpena.

Izagirre andreak, EAJ/PNVko eledunak eta Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Batzordean komentatu nuen bezala tramitekoa da, Eusko Jaurlaritzara bidali behar da plenoaren akordioa eta, aurreko plenoan onartu zen bezala, 2022. urterako %2,9ko igotzea izango du tasak.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:



1.- 2022. urterako auto-taxi zerbitzuaren hiri tarifak onartzea, ondoren zehazten den bezala, onartutako kopuruan Balio Erantsiaren Zerga bame dagoelarik. Onartutako tarifak hauek dira:

BURUNTZALDEA					
PROPUESTA TARIFA URBANA AÑO 2022					
2022. URTERAKO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
TARIFA 1*			TARIFA2 **		
Tarifa Mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Tarifa Mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera
Gutxiena	Egindako kilometroa	Itxaron ardua	Gutxiena	Egindako kilometroa	Itxaron ardua
	1,1735	22,5187	6,5792	1,8797	35,3901

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia barne hartzen du.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07: 00etatik 22: 00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22: 00etatik 07: 00etara. Era berean, tarifa hori 07: 00etatik 22: 00etara aplikatuko da igande eta jaiegunetan, Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian finkatutakoetan, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

2.- Tarifak onartuak izan ondoren, espediente administratiboa eta hartutako erabakiaren ziurtagiria, udal idazkariak emandakoa, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Komertzio eta Kontsumo departamentura bidali beharko da, Prezioen Batzordeari bidal diezaion.

5. 10/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzea.

“Kreditu transferentzien (Sarekon 2021-KALD-000013-00) bidezko kreditu aldaketaren 2021/10 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Euskerako Batzorde Informatzaileak 2021.10.07ean aho batez emandako aldeko proposamena (Teknikariaren txostena dago)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2021/10 (kreditu transferentziak) zenbakiko espedienteen berri eman da.

Kontuhartzaileak egindako txostenak kontuan izanik. Bertan adierazten dira aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeekin.

Era berean, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/10/21(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Kasu honetan, kreditu transferentzia bat izango litzateke, 4.400 eurokoa, ENBATik datorren proposamena da,,Euskararen Elikaduratik, 4.400 eurokoa, Punttuka Bertso Eskolara pasatzea, azken finean eskatzen dutelako hitzarmena zuzena izan behar duela eta partida zuzena izan behar duelako izan.

“Se refiere a una transferencia de crédito de 4.400 euros que viene desde el departamento de ENBA, del departamento de Euskara, por la cual pasarían 4.400 euros de la partida de Euskararen Elikadura, a la partida de Punttuka Bertso Eskola. El motivo principal se nos pide que al ser un convenio específico requiere una partida específica.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko **2021/10 espedientea**, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:



KREDITU TRANSFERENTZIAK

Kreditua transferituko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	0,00	4.400,00	4.400,00
	GUZTIRA	0,00	4.400,00	4.400,00

Kreditua jasoko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	54.440,00	4.400,00	50.040,00
	GUZTIRA	54.440,00	4.400,00	50.040,00

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

3.- Udal aurrekontuaren dirulaguntza eranskinaren aldaketa proposatu delako, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez badira eranskinaren aldaketa erabakiarena hau behin betikotzat joko da. Aurreko puntuan adierazi den bezala, espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

6. 12/2021 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzea.

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2021-KALD-000016) bidezko kreditu aldaketaren 2021/12 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

Ogasuneko Batzorde Informatzaileak 2021.10.21ean emandako aldeko proposamena (EH Bildu ez, Elkarrekin Podemos abstentzioa eta bestak aldekoak)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2021/12 (kreditu gehigarriak) zenbakiko espedienteen berri eman da.

